

Basque Green Talent programaren oinarriak 2026

1) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

1.1. Programaren xedea

Programaren helburua da, batetik, gazteen enplegarritasuna hobetzea eta, bestetik, merkatuaren eskaria ekonomia zirkularrean trebatuta dauden pertsonekin betetzea. Programak ekonomia zirkularrean arloko 60 orduko prestakuntza du, eta, gainera, praktika ordainduak egin daitezke arloko tutore espezializatu baten laguntzaz.

1.2. Hartzaileak

Programaren hartzaileak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren **18 eta 29 urte bitarteko gazte langabeak**.
- Egoitza soziala edo gutxienez lantegi bat **Euskal Autonomia Erkidegoan** duten **enpresak**.

1.3. Gaia

Praktika-programa hiru modalitatetan banatzen da. Ekonomia zirkularrean eta jasangarritasunaren arloko esperientzia espezifikoak eskaintzeko daude diseinatuta:

- Ingurumenaren zaintza estrategikoa: praktiken ardatza EAEko enpresentzat garrantzitsuak diren ingurumen-alertak identifikatzea eta aztertzea dira, erregulazio-, teknologia- eta merkatu-joeren ikuspegiarekin. Jarduerak aurrez aurre egingo dira Gasteizko Basque Circular Huben.
- Basque Ecodesign Centerreko enpresa bazkideei laguntzea: modalitate horretan, partaideak elkarlanean arituko dira zentroko enpresa bazkideek garatutako ekonomia zirkularreko proiektu berritzaileetan. Zereginak aurrez aurre egingo dira Bilboko edo Arrasateko Basque Circular Huben zentroetan.
- Ekonomia zirkularreko proiektuak EAEko enpresetan: modalitate horretan, EAEko enpresetan integratu daitezke, ekonomia zirkularrekin lotutako proiektuetan zuzenean lan egiteko, eta, hala, ekonomia zirkularra garatzen eta ezartzen laguntzeko.

2) PROGRAMAREN BALDINTZAK

2.1. Trebakuntza eta laguntza

- Praktikak egin baino lehen, gazteek **60 orduko prestakuntza-ikastaroa** jasoko dute ekonomia zirkularraren alderdi teknikoei eta metodologikoei buruz.
- Prestakuntzarako plazak hautagai bakoitzaren profilari jarraikiz esleituko dira. Novia Salcedo fundazioak egingo du balorazioa, hautagai bakoitzaren gaitasunak eta interesak aintzat hartuta.
- Prestakuntza arloko adituek emango dute; lhobek kontratatuko ditu. **Prestakuntza 2025ko ekainaren 1etik ekainaren 19ra** izango da.
- Prestakuntza nagusia formatu **presentzialean** emango da Basque Circular Huben Bilboko instalazioetan (Zabalgune eraikina) 09:00etatik 13:30era, ordu erdiko atsedenaldiarekin. Programaren 1. ibilbidea **Gasteizko Basque Circular Huben** egingo da, ordutegi berean.
- Horrez gain, praktikek dirauten bitartean, praktiketako **pertsonek tutoretza izango dute lhoberen prestakuntza jaso duten adituen eskutik.**
- Prestakuntzan parte hartzeak ez du bermatzen praktiketan hastea. Praktikak enpresa laguntzaileen eskuragarritasunaren baitan eta plaza-kopuruaren arabera esleituko dira.

2.2. Praktiken iraupena eta datak

- Praktikak **2026ko ekainaren 23an** hasiko dira, hau da, ela eta **sei hilabeteko** iraupena izango dute.

2.3. Zuzkidura ekonomikoa

- Zuzkidura ekonomikoa **6.804 euro** gordinetara izango da praktiketan sei hilabetez aritzeagatik (**1.134 €/hilabete**).
- Gizarte Segurantzaren alta emateko gastuak ere ordainduko dira.

2.4. Lantokia

- Praktiken tipologiaren arabera, hemen egingo dira:
 - Gasteizko Basque Circular Hub
 - Bilboko Basque Circular Hub
 - Arrasateko Basque Circular Hub
 - Praktiak egingo diren enpresan
- Astean behin egin ahal izango da telelana, baldin eta pertsonak behar diren ekipo guztiak baditu etxetik bere zereginetan eragozpenik gabe jarduteko. Telelana borondatezko aukera da, ez nahitaezkoa.

3) HAUTAKETA-PROZESUA

3.1. Hautaketa-prozesua

- Novia Salcedo fundazioaren ardura izango da hautagaiak aukeratzea prestakuntzan parte hartu eta praktikak egiteko, eta, xede horrez, profilak, interesak eta programaren helburuekiko egokitzapen-maila hartuko dituzte aintzat.
- Ezinbestekoa izango da prestakuntza-ikastaroa gainditu izana praktiken programara iristeko. **Ikastaroa gainditzeko, gutxienez eskolen % 80ra joan izana egiaztatu behar da, bai eta ikastaroan esleitutako jarduera praktikoak egin izana ere.**

4) PROGRAMAN IZENA EMATEA

- Programan parte hartu nahi duten pertsonak helbide honetan eman beharko dute izena: <https://www.noviasalcedo.es/basque-green-talent/>
- Programak deialdia berria irekiko du 2026ko urrian.

5) INFORMAZIO GEHIAGO

Helbide elektronikoa: basquecircularhub@ihobe.eus

Telefonoa: 647 940 819